

KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN 2016ko URRIAREN 3ko BILKURA

Herriko Kontseilua herriko etxean bildu zen, 2016ko urriaren 4an, 20:00etan, Vincent BRU buru.

Hor zirenak: Vincent Bru auzapez jauna; Bernadette Jougleux anderea, Christian Devèze jauna, Eliane Noblia anderea, Frédéric Bardin jauna, Pascale Lespade anderea eta Henri Saint Jean jauna, axuantak; Vincent Goytino jauna, Christiane Hargain-Despéries anderea, Patrice Dor jauna, Yolande Huguenard anderea, Argitxu Hirigoyen anderea, Jean-Noël Magis jauna, Corinne Othatceguy anderea, Peio Etchelecu jauna, Maryannick Hirigoyen anderea, Roger Barbier jauna, Carmen Gonzalez anderea, Pascal Bourguet jauna, Véronique Larronde anderea, Argitxu Hiriart-Urruty anderea, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïçaguerre anderea eta Pantxo Michelena jauna, zinegotziak.

Ezin etorriak: Didier Irastorza jauna eta Eliane Aizpuru anderea, axuantak; Anne-Marie Pontacq anderea, Jean-Jacques Lassus jauna eta Camille Jenvrin jauna, zinegotziak.

Ahalordeak: Didier Irastorza jaunak Christian Devèze jaunari, Eliane Aizpuru andereak Vincent Bru jaunari, Anne-Marie Pontacq andereak Christiane Hargain-Despéries andereari, Jean-Jacques Lassus jaunak Vincent Goytino jaunari, Camille Jenvrin jaunak Bernadette Jougleux andereari.

Auzapez jaunak asteburuan herrian iragan gertakariarekin zabaldu du bilkura. Dolutan dagoen familiaren mina errespetatu behar da.

Bestalde, oroitarazi du joan den ostegunean Errobi kolegioan gertatu dena, zuzendaria kolpekatua izan baita, gauerdia aldean. Zehaztu du bertan zegoen taldeko kide helduak berehala agertzeko agindua izan duela eta arratsalde honetan epaitua izan dela.

Gai alaiagorik ere bada aipatzeko, igandeko euskal pastizaren bestak arrakasta handia izan baitu. Iaz, berrogei bat kofradia bildu zen. Aurten, berrogeita hamazazpi; hau da, hamasei gehiago. Gainera, jende anitz bildu da; iaz hamalau mila ziren, eta aurten hamazazpi mila bostehun. Prentsak gertakaria anitz aipatu du. Bestak arrakasta izigarria izan du, beraz, eta Euskal Herriko aisialdien paisaia gero eta gehiago errotzen ari da.

Auzapez jaunak Didier Irastorzaren berri onak eman ditu; alabaina, ebakuntzaren ondotik, Kanbora itzuli da, eta pausatzen ari da, Véronique emaztearekin. Dena ongi doa biendako, eta espero du hemendik hilabete eta erdira kasik bizi normalera itzultzen ahalko direla.

1 – Bilkurako idazkariaren izendatzea.

Kideek, **aho batez**, Argitxu Hirigoyen anderea izendatu dute bilkurako idazkari.

2 – Aitzineko bilkuraren bildumaren onartzea.

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideei galdegin die 2016ko uztailaren 4ko bilkuraren bildumari buruz oharrik baduten.

Oharrik izan ez denez, aitzineko bilkuraren bilduma aho batez onartu da.

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluari gai-zerrendan puntu bat gehitzeko baimena galdegin dio; hots, 2bis puntua, Bil Ta Garbi sindikatu mistoaren estatutuen aldatzeari buruzkoa.

Herriko Kontseiluko kideak ados izanik, puntua gai-zerrendara sartu da.

2bis –Bil Ta Garbi sindikatu mistoaren estatutuen aldatzea.

Auzapez jaunak jakinarazi du estatutuak aldatuko direla, NOTRe legearen ondorioz. Bereziki, Bizi Garbia barneratuko da, sindikatu bakar baten sortzeko. Horretarako, batetik, sindikatu mistoaren estatutuak aldatu behar dira; eta, bestetik, sektorekako ordezkatzeko ahala berrikusi behar da, eremu berri horien barneratzeko. Hego Lapurdi hiriguneak, Bil Ta Garbin ez zenak, lau ordezkari eta hamabi boz lituzke; hau da, egun Euskal Kostaldea Aturri hiriguneak duenaren erdia. Bestalde, lehendakariordeen kopurua emendatu da, bosgarren toki bat sortu baita egungo Hego Lapurdi hirigunearentzat. Aldaketa horrek paisaia sinplifikatuko du. Izan ere, bi sindikatu ziren, eta gure Errobi herri elkargoan berean, bi herri, Arrangoitze eta Basusarri, Bizi Garbiaren baitan ziren, eta gainerateko bederatziak Bil Ta Garbiren barne. Oroitarazi du Bil Ta Garbi Ipar Euskal Herriko eta Biarnoko Sauveterre, Salies eta Navarrex kantonamenduetako etxe hondakinen tratamenduaz arduratuko dela batez ere.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

3 – Partaidetza funtsa.

Auzapez jaunak partaidetza funtsaren aldatzea proposatu du, Uztaritzeko herriak galdegin bezala, baina arrazoi ezberdinengatik. Oroitarazi du Herri Elkargoak partaidetza funtsak eman ditzakeela, herriari gelditzen zaionaren %50ekoak gehienez, kanpoko diru-laguntzak kendu ondoan. Herriak Estatuari eta eskualdeko prefetari galdea helarazi dio, eta 2016 urterako, diru-laguntza gehigarriak izan ditu, Tokiko Inbertsio Publikoaren Sostengatzeko Funtsa gisa (TIPSF). Beraz, herriaren proiektuetan, diru-laguntza zatia aldatu da. Uztaritzeko herriak ez bezala, azken horrek proiektu gehigarriak proposatu baititu, Auzapezak Herriko Kontseiluko kideei galdegin die hainbat eragiketaren aldatzea, adibidez kirol anitzendako zelaia, bideak, autobusendako gunea eta Sorhainde plaza, ez baitziren herriak partaidetza funtsa gisa galdegin zezakeen zenbateko osora heltzen. Beraz, bozkatzeko honen helburua da herriak dirurik ez galtzea eta partaidetza funtsa gisa esleitu zenbatekoak Kanboko herriari ordainduak izatea, baina doiketa batzuekin, Estatuaren TIPSF laguntza berri hori dela eta, diru-laguntzen zatia handitzen baitu, eta beraz, herriaren autofinantzamendua ttipitzen.

Aiçaguerre andereak galdegin du Herri Elkargoak berriz deliberatu beharko duen.

Auzapez jaunak zehaztu du herriak aldaketa galdea Herri Elkargoari egin behar diola; azen horrek deliberatuko du, aldaketa horren onartzeko, eta Herriko Kontseiluak deliberatu beharko du, Herri Elkargoaren bozkaren berresteko. Horrela, herriak partaidetza funtsaren hastapeneko zenbatekoa atxikitzen ahalko du, eta ezberdin banatu, Herriko Kontseiluak lehen aldiko deliberatu zuelarik oraino ez zegoen aldaketa horren kontuan hartzeko.

Michelena jaunak arras ongi ulertzen du ontzi komunikatuen printzipio hori, baina harrিতua da, 5 (bideak) eta 7 (kirol anitzendako zelaia) eragiketak anitz emendatu baitira. Hastapeneko aitzinkontuan, bideen sailarendako 500 000 € ezarri ziren, eta orain 700 000 € dira. Gisa berean, kirol anitzendako zelaia 150 000 €tan estimatu zen, eta orain 279 000 €tan da; hau da, %86 baino gehiago emendatu da. Aldaketa horien azalpenak nahi ditu.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak erantzun dio, bideen programarentzat, partaidetza funtsak 2016 eta 2017 bi urteei dagozkiela, baina eragiketa bakoitza urteko abenduaren 31 aitzin abiatu

behar dela. Beraz, herriak 2016ko eta 2017ko gastuak justifikatzen ahalko ditu. Kirol anitzendako zelaiarentzat, zenbakia apalagoa zen, handiagoa emanez herriak diruz lagundu zitekeen zenbatekoa gainditzeko arriskua baitzuen. Zehaztu du diru-laguntza gauzatu obren arabera kalkulatzeko dela. Beraz, funtsezkoena da 1 699 752 €ko diru-laguntza segura justifikatzen duten eragiketen aurkeztea; horregatik hedatu dira partaidetza funtseko diru-laguntzak eragiketa horietara guzietara. Gehitu du beste eragiketa batzuetan ere, zenbatekoak, gauzapenean, partaidetza funtsean eman zenbakiak baino handiagoak direla. Horrela, herria segur da finantza-zenbateko osoa berreskuratuko duela.

Michelena jaunak ohartarazi du kirol anitzendako zelai proiektua, hastapenean 150 000 €tan estimatua zena, azkenean 279 000 €koa dela. Proiektu hori aurkeztu zelarik, ez zen egiazko estimazioaren berri eman.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak erantzun dio estimazioa herriko zerbitzuek egin zutela, eta obralariak zehazkiago aztertu behar zuela.

Bacardatz jaunak adierazi du iruditzen zaiola kirol anitzendako zelaiak 60 000 € balio duela, beraz galdetzen du nolaz aipatzen den 290 000 €.

Lespade andereak ihardetsi dio 290 000 €ko zenbatekoak kirol anitzendako zelaiak eta skate parkea hartzen dituela barne.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Gehiengoak onartu du. Hauek abstenitu dira: Argitxu Hiriart-Urruty anderea, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïçaguerre anderea eta Pantxo Michelena jauna.

4 – Autobus geltokiaren antolamendua: enpresen izendatzea.

Magis jaunak oroitarazi du, Departamenduko Kontseiluak galdeginik, herriak erabaki zuela autobus geltoki baten sortzea Michel Labéguerie estadioaren aparkalekuaren zati batean. Antolamendu horri esker, Errobi aparkalekuan gaizki aparkatzen diren eskola autobusen arazoa partez konponduko da; bederatzi toki gehiago izanen dira autobusendako. Antolamendu horren xedea da haurrei segurtasun baldintza onetan egitea harrera, eta jende elbarrituendako kai baten sortzea.

Obra horiendako aurreikusi kostua 217 480 €koa da, gordin; hau da, 6 980 € obragintza eta 210 500 € antolamendu-obra. Obrak 2016ko urriaren 15ean hasia aurreikusten da. 2016ko maiatzaren 2ko eta uztailaren 4ko deliberamenduez, Herriko Kontseiluak inbertsio proiektu hori onartu zuen. Kontsulta bat abiarazi zen, Prozedura Egokituak dituzten Merkatuaren bidez, 2016ko uztailaren 5ean, “administrations64” eta “petites affiches” webguneetan eta herriaren webgunean. Merkatua bi zatitan esleitu zen: 1. zatia, terrazamendua/bidea/ur zikinen eta euri uren saneamendua; eta 2. zatia, orotariko sareak. Eskaintzen aurkezteko epea 2016ko agorrilaren 3an finkatu zen, 12:00etan. Bi gutun-azal eskuratu genituen.

Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordeak 2016ko irailaren 12an bildu zen gutun-azalen zabaltzeko, eta 2016ko irailaren 19an berriz bildu zen, eragiketa horretan obralari den BETIDEIA ikerketa bulegoak eskaintzen azterketa txostenaren aurkezteko.

1. zatiarentzat, SOBAMAT enpresak eskaintza bat aurkeztu du, 168.105,59 €koa, gordin. 2. zatiarentzat, ETPM enpresak eskaintza bat aurkeztu du, 10 908,00 €koa, gordin. Eskaintza horien zenbatekoa, orotara, administrazioaren estimazioa baino apalagoa da.

Herriko Kontseiluari galdegin zaio Auzapez jaunari baimena eman diezaion hautatu enpresekin merkatuaren eta dagozkion agiri guzien izenpetzeko.

Auzapez jaunak gehitu du denek ezagutzen dutela herri barneko Sorhainde aparkalekua libratuko duen autobus geltoki horren antolamendu proiektua, autobusek toki anitz hartzen baitzuten Kanboko erdigunearentzat garrantzitsua den aparkaleku horretan. Herriaren xedea, batez ere, Saint-Michel eta Errobi kolegioen inguruetako eskola-garraioen arazoan konpontzen saiatzea izan da. Oroitarazi du Departamenduko Kontseiluak duela bi urte jada idatzi zuela, autobus jario horiek sortzen zituzten segurtasun arazo handien berri emateko; alabaina, batzuetan, zazpi edo zortzi autobus heltzen ziren batean, burasoen autoetatik ateratzen ziren haurrez gain. Garai hartan, Frantxoa Bidegorryri aitzin proiektu baten egitea galdegin genion. Plazan berean egitea aski konplikatu zen. Magis jaunak aurkeztu berri duen antolamendu horrekin, arazoa konponduko da.

Magis jaunak zehaztu du arratsaldean garraiatzaileekin eta Departamenduko Kontseiluko zerbitzuekin bildu dela, Sorhainde plazako eta autobus geltokiko bi proiektu horien berrantolatzeak izanen dituen eraginak neurtzeko. Aktibitate handiengan, hamahiru autobus gelditzen dira Errobi aparkalekuan. Aurkeztu proiektuak denak poztu ditu, autoen eta autobusen jarioak bereiztea ahalbidetzen baitu. Sor lirategien arazoak aurreikusitakoak izan dira. Obren ondorioz, autobus ibilbideak berrantolatu beharko dira, bereziki Hazparne/Beskoitze/Kanbo ibilbidea. Egun, ibilbide hori Sorhainde plazara joan da, gibelera itzultzeko. Autobusak ezingo direnez gehiago Sorhainde plazara joan, departamenduko zerbitzuek bi autobus geltoki sortu beharko dituzte, café des allées aldean, Anne de Neubourg etorbidean. Antolamendu hori urte hondarra aitzin gauzatuko da.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du non izanen diren geltoki horiek.

Magis jaunak erantzun dio geltoki horiek Anne de Neubourg etorbidearen bi aldeetan izanen direla, café des allées ostatura iritsi aitzineko bide zuzenean, segurtasun baldintzak errespetatu behar baitira, bereziki biribilgunearekiko urruntasunari dagokionez. Departamenduko zerbitzuek antolamendu hori aztertuko dute eta bertze bilkura bat antolatuko da kokapen zehatzen finkatzeko.

Bacardatz jauna doi bat harrিতua da, ez bakarrik proiektu horri buruz, ohartzen baita Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordeetan, bai Sorhainde plazarentzat, bai autobus geltokientzat, bi enpresak baizik ez diotela erantzun merkatuari, bide eta argiztapen sailean. Zalantza du, enpresak Kanbora lanera jiteko egiazki interesatuak diren. Harrigarria da enpresa bakar baten erantzuna eskuratzea. Izan ere, eskaintza estimatu zenbatekoa baino apalagoa da baina txosten bakar bat baizik ez da, beraz, zaila da konparatzea.

Auzapez jaunak ihardetsi dio egia dela, eta noski, prezioak zerbitzuen estimazioak baino goragoak izan balira, merkaturia ondorioz gabetzat joko zela, nahiz eta ez ohiko merkatu publiko bat izan, baizik eta merkatu egokitua; kontsulta berriz eginen zatekeen. Kontsulta zinez serio egin dute zerbitzuek eta zerbitzuetako zuzendari nagusiak; ez da herriaren zeregina enpresengana eske joatea. Enpresak lehian ezarri dira, behar bezala, eta enpresek ez badute ihardetsi, haien kalte. Hain zuzen, herriarekin erregularri lan egiten duten bi enpresak eskaintza bana aurkeztu dute. Bi eskaintzak, bi zatientzat, zerbitzuek egin estimazioak baino apalagoak direnez gero, ez dago baztertzeko arrazoirik. Magis jaunak erran duen bezala, zerbait egin behar da, presazkoa da, haurren segurtasuna baita jokoan. Auzapezak ez du ulertzen zergatik, bi arrapostu bakarrik eskuratzeagatik, bertze kontsulta bat egin beharko litzatekeen. Ez die herriak enpresei debekatu erantzutea. Bere ustez, “nehork ez du Kanbon lan egin nahi” argumentuak ezin du balio izan. Bacardatz jaunaren iritzia da, beharbada, baina ez herriarena.

Magis jaunak gehitu du, eskaintzen balioari dagokionez, ikerketa bulego batek eta obralari batek estimazio bat egin dutela, jende kalifikatuak direla eta estimazioa zuzena dela enpresen eskaintzei begira. Beraz, herriak pentsa dezake proposatu prezioak zuzenak direla.

Bardin jaunak zehaztu du txostena hamalau aldiz deskargatua izan dela; beraz, enpresek eskaintza ikusi dute. Gero, ikusi behar da interesik zuten, prezioen, epeen eta garaiaren arabera. Eskuratu eskaintzak aitzinkontuan sartzen dira; beraz, normala da herriak enpresa horiek hautatzea.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

5 – Argi publikoak eta oinezkoen pasabideen segurtasunaren bermatzea: enpresen izendatzea.

Goytino jaunak zehaztu du argi publikoak eta oinezkoen pasabideen segurtasunaren bermatzea bi etorbideri dagozkiela kasu honetan: Edmond Rostand etorbideari eta Espainiako etorbideari. Etorbide horietako bakoitzean, arazo ezberdinak. Espainiako etorbideari dagokionez, urteen poderioz, karrika-argi zenbait erori dira. Belar gune batean ezarriak izan ziren, iduriz gaizki babesturik, eta pixkanaka, oxidatu dira eta batzuk erori dira. Habe horiek lehenbailehen aldatu behar ziren. Toki berean kokatzea erabakia izan da, baina antolamendu iraunkorragoekin, habeen oxidazio arazo hori berriz gerta ez dadin. Bestalde, Edmond Rostand eta Espainiako etorbideetan, oinezkoen pasabideetan segurtasuna bermatzea beharrezkoa da. Oraingoz, pasabide horiek ez dira argituak, eta auto-gidari batzuei gertatu zaie zeharkatzen ari ziren jendeak parez pare ikustea, azken momentuan, ez baitziren ongi ageri. Oinezko pasabide horiek ongi argitzea ezinbestekoa da, oinezkoen segurtasunaren bermatzeko.

Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzorde bat bildu zen, 2016ko irailaren 12an, gutun-azalen zabaltzeko, eta 2016ko irailaren 19an berriz bildu zen, eskaintzen azterketa txostenaren aurkezpenarendako. Bi gutun-azal eskuratu ditugu, eta ETPM enpresa da hautatua izan, 74 556.50 € gordineko obren egiteko.

Bacardatz jaunak adierazi du partaidetza funtsentzat, herriak 120 000 € aurreikusi zituela buxetean. Galdegin du bertze oinezko pasabide batzuetan segurtasun obrak eginen diren, zenbateko horretara heltzeko.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak zehaztu du argi publikoen sailean badirela bertze gastu batzuk aurtengo aitzinkontuan. Ez dira programa honetan sartzen, eta herriak behar diren fakturak baliatuko ditu, partaidetza funtsei gastuen justifikatzeko. Ez da bertze programarik izanen. Horregatik emendatu du herriak partaidetza funtsendako zenbatekoa, baitaki programatu gastuen zenbatekora helduko dela.

Auzapez jaunak gehitu du lehentasuna eman zaiela lanjeros gisa seinalatu diren eta egiazki lanjerosenak diren pasabideei; hau da, Edmond Rostand etorbidekoa, Carrefour contact ondoan, eta Espainiako etorbidekoa, bereiziki Larramendy aitzinean. Ondotik, Arditeya aldera so egin beharko da; han, malda ezti bat bada, eta gaizki ikusten da. Noski, gune lanjerosenak aztertuko dira.

Hiriart-Urruty andereak zehaztu du argiak ez direla pasabidearen parean, Larramendy aitzinean; beraz, galdegin du kokapena aldatuko den ala ez.

Goytino jaunak baieztatu dio argi bat gehituko dela oinezkoen pasabidearen bertikalean.

Bacardatz jaunak galdegin du argi bat pentsatua denez bainuetxeen ondoan, bata bertzearen gibeletik dauden bi pasabideetan. Momentuz, ez dago batere argirik, eta jende anitz pasatzen da bide horretan.

Goytino jaunak adierazi du badirela, hain segur, bertze gune batzuk aztertzeko, eta obrak beharko liratekeela bertze toki batzuetan ere, baina lehenik, lanjerosenak iduri duten bi guneetan egitea pentsatua da.

Auzapez jaunak zehaztu du pasabide hori Ursuya/Urtsuia etorbidean dagoela, hau da, zubira doan etorbidean, eta ez bainuetxeen etorbidean. Egia da kurista batzuek zeharkatzen dutela toki horretan, eta autoak aski fite ibiltzen direla; istripu lanjer batzuk ikusiak dituela erran du. Bidearen zabaltasuna kontuan izanik, Nivaldia hor denez eta kuristak goizean goiz abiatzen direnez, argiak berrikusi beharko lirateke.

Aiçaguerre andereak gehitu du oinezkoak hortik ateratzea harrigarria dela.

Auzapez jaunak adierazi du beharbada seinale bat ezarri beharko litzatekeela, “oinezkoen pasabidea” edo “oinezkoen ateratzea”, jada, egoera hobetzen saiatzeko, eta gero ikusiko genuke herriak zer egiten ahal duen.

Hiriart-Urruty andereak gehitu du ez dutela kuristek bakarrik zeharkatzen pasabide horretan.

Auzapezak erantzun dio, noski, kanboarrak ere badirela, baina toki horretan, hala ere, kuristak direla gehienak.

Bacardatz jaunak zehaztu du oinezkoendako bi pasabide badirela han, bata bertzearen gibeletik. Beharbada bat aspaldikoa da, baina ezabatu beharko litzateke.

Goytino jaunak erantzun dio gai hori aztertua izan dela. Bainuetxeen parean, oinezkoen bi pasabide daude; batak espaloia apalagoa duenez, hain segur, hori atxikiko da, eta bertzea ezabatuko.

Jougleux andereak adierazi du lehen xeila bat bazela espaloi apala den tokian, baina ez dagoela gehiago. Horregatik daude oinezkoendako bi pasabide.

Aiçaguerre andereak ohartarazi du arazo bera dagoela Xalbadorren.

Auzapez jaunak oharrak eskertu ditu, erranez kontuan hartuko zituela hurrengo bilkura teknikorako.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du noiz instalatu ziren oxidatu diren karrika-argiak.

Auzapez jaunak ihardetsi dio etorbidea berregina izan zela, Duhart jauna auzapez zelarik.

Hiriart-Urruty andereak ohartarazi du, beraz, aspaldiko afera dela.

Auzapez jaunak eskertu du eta azpimarratu du joan den mendean zela. Gehitu du karrika-argi oxidatuak belar gune batean direnak direla batez ere, txakurren pixarengatik, gogotik egiten baitituzte beharrak Kanboko ganderailuetan. Txakurren pixak izigarri larritzen du oxidazioa.

Bacardatz jaunak galdegin du betoizko oinarri baten ezartzeak txakurrak oztopatuko dituen habe horietan pixa egitetik.

Auzapez jaunak erantzun dio entsegu bat egingen dutela Bacardatz jaunaren txakurrekin.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

6 – Saint Laurent elizan berogailu baten ezartzea: enpresaren izendatzea.

Jougleux andereak oroitarazi du 2015ean herriak Jondoni Laurendi elizaren berritzeko eta agerian emateko obrak egiteko nahikeria adierazi zuela. Akitaniako DRACak aholkaturik, Catherine Matveieff andereari dei egin dio, Baionako Ondarearen arkitektoa baita, gunearen barneko eta kanpoko obren aurretiazko ikerketa eta zenbatzea egin ditzan.

2015eko irailaren 21ean, Jondoni Laurendi eliza Monumentu Historiko sailkatua izan zen.

Bere ikerketan, Matveieff andereak adierazi zuen haize ufagailu bidezko beroketa ez zela beharbada komeni barneko tinduen kontserbatzeko.

Alabaina, berogailua letoizko sare batetik sartzen zen, elizako iparraldeko zolan sartu aho batetik, galeriaren azpialdean. Galdara kanpoko eraikin batean zegoen, elizaren gibelaldean: hodi bat eraikin horretatik abiatzen zen, elizara sartzeko.

Elizako kantorearen antolamendu obrak kari, lotura hodi horren kentzea erabaki zen, oinezkoendako eta ahalmen urriko jendeendako betoi desaktibatuzko bidexka baten egiteko, elizaren gibelean.

Obra horien ondorioz, beroketa sistema ez dabil gehiago. Beraz, herriak Matveieff andereari dei egin dio, negua gabe berogailuaren instalatzeko, Monumentu Historiko sailkatua den Jondoni Laurendi elizaren berritze lanen baitan.

2016ko agorriaren 11n, kontsulta bat abiarazi genuen, prozedura egokituako merkatu baten bidez, “administration64” deskargatzeko plataformaren eta herriaren webgunearen bitartez.

Merkatua zati bakarrean esleitu zen: 1. zatia, berogailua/elekttrizitatea.

Eskaintzak aurkezteko epea 2016ko irailaren 12an zen, 12:00etan. Obrak 25 000 €tan estimatu ziren.

Bi gutun-azal eskuratu genituen; Tarbeseko CGV-CIEL enpresarena, 15.942,97 €koa, gordin, eta La Seguinièreko Delestre industrie enpresarena, 13.499,21 €koa, gordin.

Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzorde bat bildu zen, 2016ko irailaren 12an, astelehenarekin, 16:00etan, gutun-azalen zabaltzeko, eta 2016ko irailaren 19an berriz bildu zen, astelehenarekin, eragiketa horretan obragile den Catherine Matveieff andereak eskaintzen azterketa txostenaren aurkezteko.

Bi bilkura horien ondorioz, Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordeak proposatzen du prezio apalena duen eskaintza aurkeztu duen enpresari esleitzea merkatua, kontsultan aipatu irizpideei jarraiki. Herriko Kontseiluari galdegin zaio Auzapez jaunari baimena eman diezaion hautatu enpresarekin merkatuaren eta dagozkion agiri guzieren izenpetzeko.

Bacardatz jaunak ohartarazi du arkitektoak bazekiela zer obra egin ziren elizaren inguruan, jada bazekiela berogailu elektrikoa komeni zela. Beraz, suposatzen du eremuak onartu dituelarik, elizaren inguruko eremu osoa ere onartu duela, hau da, 4. zatia. Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordeari jakinarazi dio herriak ez duela behar den indarra elizan horrelako berogailuen elikatzeke. Lotzeko obrak egin beharko dira, eta beraz, elizaren gibeletako eremuaren zati bat berriz hautsi beharko da. Domaia da ez baitu lehenago ekin, hodian pasaraztea aitzinetik pentsa genezan.

Jougleux andereak erantzun du Magis jaunak eta biak dagokien jendeengana joan direla. Ez da deus hautsi beharko. Aire bidezko linea bat ezarriko da, eta 3 000 € inguru gostako da.

Bacardatz jaunak gehitu du aire bidezko linearekin doi bat indar gehiago izaten ahalko dela komunen ondoko kutxan. Kutxa horretatik elizara joateko, nondik pasatuko da?

Jougleux andereak erantzun dio hori dela emana izan zaion arrapostua.

Bacardatz jaunak ohartarazi du eliza sailkatua dela eta herriak aire bidezko kable bat pasaraziko duela.

Magis jaunak erantzun dio, bere ustez, linearen zati bat fatxadetan berean ezarriko dela, eta aire bidezko linea ahal bezain zati laburrean ezarriko dela. Obrak eta bilkurak aitzina egiten utzi behar dira, ikusiko nola egingen duten.

Jougleux andereak gehitu du hastapenean erran zutela berogailua gasezkoa izanen zela. Beraz, obrak hasi aitzin hodiak tiratu zituzten.

Magis jaunak zehaztu du Matveieff andereak gaia beregain hartu zuelarik beroketa sistemaren erabakia ez zela hartua; alabaina, garai hartan, elizako obrentzat, gasezko berogailua ezartzea planteatzen zen, gehiago berotzen baitu, eta galdea zen hori eginez gero zein izanen zen instalatu beharreko hodiaren diametroa. Baina aterabide hori ez zen oraino aztertua izan. Aterabide horiei buruz aitzinatzea eta konparaketa ikerketak egitea itxoin behar izan bagenu, herriak hilabete edo hilabete eta erdi galduko zukeen. Baina ezin zituen elizako obrak gibelatu. Beraz, atxikia izan den printzipioa da berogailu horren kentzea eta berogailu elektrikoaren aterabidearen hartzea.

Bacardatz jaunari iduritzen zaio lotzeko obrak eta elizako kutxa elektrikoaren egokitzeko obrak garestiagoak izanen direla berogailu elektriko bano. Herria tarifa horira pasatuko da. Ez du ulertzen nola bozka dezakeen Herriko Kontseiluak, gaur, berogailuaren onartzeko, egin beharko diren obren zenbatekoaren berri izan gabe.

Magis jaunak gehitu du berogailu elektriko hautatua izan dela, baita ere, elizaren barnealdearen babesteko. Berogailu elektrikoaren sistema bera ez da zalantzan jarri behar. Elikatzeko aterabidea bihar aztertuko da, bilkura bat izanen baita, eta Bacardatz jauna bertan izanen baita.

Bacardatz jaunak erran du, hala ere, obrei dagozkien zenbakiak eskas direla instalazioa bozkatu ahal izateko.

Auzapez jaunak erantzun dio ez dela arazorik, oposizioa abstenituko dela, ala kontra bozkatuko duela. Herriak hiru xede ditu: lehenik, elizaren berotzeko energia fosilen saihestea; izan ere, makina-gelatik elizaraino joaten ziren hodiak ikusi zituelarik ohartu zen kozkor bat egin beharko litzatekeela, eta horrek traba handia eraginen ziekeela mugikortasun urriko jendei. Beraz, energia fosileko berogailu hori lehenbailehen kentzea erabaki zen. Bigarrenik, Matveieff anderearen oharrak kontuan hartu dira, jakinarazi baitu eliza zoldatu zela, zenbait arrazoiengatik, baina batez ere berogailuengatik eta noski xirioengatik. Elizako tinduak XX. mende hastapenekoak dira. Hirugarren betebeharra berogailua Omiainsainduko prest egotea zen; hau da, azarorako. Zerbitzuak Matveieff anderearekin bildu ziren; proposamenak egin zituen, eta DRACak onartu zituen. Beraz, bere proposamena atxiki genuen.

Bacardatz jaunaren ustez, domaia da obrak ez baitira maiatzean berean hasi. Harritua da lanak irailean hasteaz. Normala da azaroaren 1.erako justu izatea.

Auzapez jaunak ihardetsi dio obra horiek irailaren 1.a baino lehen pentsatuak zirela, herria ez baita egun horren beha egon Matveieff andereari dei egiteko; bestela, ezin izango zen gaur bozkatu.

Bacardatz jaunak zehaztu du, oro har, hobe dela berogailu lanak udan egitea, neguan baino.

Auzapez jaunak erantzun dio zailtasuna zela plazako antolamendu lanak koordinatzea eta Matveieff anderea konbentzitzea gai hori landu behar zela elizan pentsatuak ziren obrak aitzin. Gai horri buruz gogoetatzea presazkoa zen, antolamendu-lanak baitziren elizaren inguruan.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Gehiengoak onartu du. Hauek abstenitu dira: Hiriart-Urruty anderea, Bacardatz jauna, Aïçaguerre anderea eta Michelena jauna.

7 – Sorhainde plazaren antolamendua: enpresen izendatzea.

Magis jaunak oroitarazi du herriak erabaki duela plaza horren berrantolatzea, autoen aparkatzeko toki gehiago emanez, egungo autobus aterpearen kentzea eta behar diren arauen arabera berreraikitzea, eta merkataritza gunearen kartoiak biltzeko lokalaren kentzea. Obra horiek 230 170 € gordin gostako zirela neurtu zen (7 170 €gordin obragintzarentzat eta 223 000 € gordin lanentzat). Herriko Kontseiluak inbertsio proiektu hori onartu zuen, 2016ko maiatzaren 2ko deliberamenduz. Obra horiei prozedura egokituak aplikatu zitzaizkien; “administration64” eta “les petites affiches” webguneetan eta herriaren webgunean argitaratu ziren. Merkatua hiru zatitan esleitu zen: 1. zatia, terrazamendua, bideak, ur zikinen eta euri uren saneamendua; 2. zatia, orotariko sareak; 3. zatia, autobus aterpea/kartoiaren lokala/komun publikoak.

Eskaintzen aurkezteko epea 2016ko irailaren 23an finkatu zen. Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordea 2016ko irailaren 23an bildu zen gutun-azalen zabaltzeko, eta 2016ko irailaren 30ean berriz bildu zen, eragiketa horretan obralari den BETIDEIA ikerketa bulegoak eskaintzen azterketa txostenaren aurkezteko.

Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordeak proposatu du zenbateko apalena duen eskaintza proposatu duten enpresari esleitzea, merkatuan aipatu irizpideei jarraiki.

1. zatiarentzat: eskaintza bakar bat, SO.BA.MAT enpresarena, 188 537 €koa, gordin; 2. zatiarentzat, eskaintza bakarra, E.T.P.M enpresarena, 16.014,50 €koa, gordin; eta 3. zatiarentzat, hiru eskaintza: maisons HIRIGOYEN enpresarena, 46 434,20 €koa, gordin, ARIBIT BAUDRY enpresarena, 44 173,20 €koa, gordin, eta SE.BA.SO enpresarena, 43 380 €koa, gordin.

Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordeak proposatu du 1. zatiarentzat SO.BA.MAT enpresa hautatzea, 2. zatiarentzat E.T.P.M enpresa, eta 3. zatiarentzat ARIBIT BAUDRY enpresa.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du obrak noiz hasia den.

Magis jaunak erantzun dio, Sorhainde plazarentzat, kronologikoki, autobus geltokiaren obrak hasiko direla lehenik, lehentasuna baita autobus geltokiaren bukatzea, autobusak hara joan daitezkeen. Azarotik goiti, Sorhainde plazan lokala eraikiko da, eta obrek bospasei aste iraunen dute, 2017 hastapenean bururatzeko. Bideetako obrak, aldiz, 2017ko urtarriletik goiti abiatuko dira, eta hiru hilabete iraunen dute, guti gorabehera.

Auzapez jaunak galdegin du auto elektrikoendako tokia erran bezala atxikia izan den, egungo beharrei aitzina hartzeko, ibilgailu elektrikoak izanen dituzten biztanleek kargatu ahal izan ditzaten.

Magis jaunak baieztatu du gutienez bi toki pentsatuak direla. Eztabaida bat izanen da, bilkura baten karietara, jakiteko herriak tokiak bertan uzten dituen ala tokiz aldatzen dituen.

Auzapez jaunak poz handiarekin azpimarratu du azken puntu hori, herriak aitzinamenduen eta herritarrek hemendik urte batzuetara izanen dituzten beharren norabidea hartzen baitu. Atsegin handia ematen dio batzordeak herri erdigunean ibilgailu elektrikoendako tokiak pentsatu izanak.

Bacardatz jaunak galdegin du toki hori eremu urdinean izanen denez.

Auzapezak baiezkoa eman dio.

Bacardatz jaunak erran du ibilgailu elektrikoen desmarta "biziki ontsa" dela, eta galdegin du herriak planteatu duenez herriko zerbitzuendako ibilgailu elektrikoak baliatzea.

Goytino jaunak ihardetsi dio, duela zenbait denbora, ibilgailu elektriko bat proposatua izan zela. Ez zen biziki garesti. Egun batzuez Arnagan egon zen eskura, eta azkenean, zerbitzuek adierazi zuten ez zela arras egokia. Bertze aterabidea aise garestiagoa zen, eta memento horretan ez zen hautatua izan. Baina gaia zabalik dago, eta bai zerbitzu teknikoek, bai agenteek ibilgailu elektrikoak baliatzeko aterabideak sakonago aztertzearen alde agertu da guziz.

Saint-Jean jaunak zehaztu du ibilgailu elektriko bat badela, jada, herrian, apairuen eramateko.

Michelena jaunak galdegin du Sorhainde plazaren itxura erdiguneko berdina izanen denez; hau da, estaldura berdinak izanen direnez, bereziki espaloietan eta aparkatzeko eremuan.

Magis jaunak ihardetsi dio bidean berean usaiako mundruna ezarriko dela; espaloietan, aldiz, antolamendu ezberdina izanen da.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

8 – Olhaberriague auzotegiko lursail batzuen saltzea eta trukatzea: inkesta publikoaren ondoko erabakia.

Auzapez jaunak oroitarazi du gaia berriz aipatzen duela, Herriko Kontseiluak gai horri buruz jada deliberatu zuelako, inkesta publikoaren abiarazteko. Kanboko mugan, Hazparnerako eta Urkoirako norabidean diren lursail batzuen erostean eta trukatzean datza. Lursail horien jabeak Jean eta Geneviève Chaldu eta Jean-Bernard Chaldu dira. Lehen deliberamenduaz geroztik, inkesta publiko bat izan da, 2016ko ekainaren 13tik 28ra. Inkesta horren txostena hutsa da; hau da, kontrako oharrik ez da izan proiektuari buruz. Beraz, gaur, Kanbo eta Hazparneren arteko mugako Olhaberriague auzotegiko lurren trukaketa horri buruz deliberatzen ahal dugu. Inkestaren arduradunak proiektuaren aldeko iritzia eman du.

Aho batez onartu da.

9 – Juanchuto etorbidearen zabaltzea: inkesta publikoaren ondoko erabakia.

Bardin jaunak jakinarazi du puntu hau, aitzinekoa bezala, Herriko Kontseiluak jada aipatu zuela. Juanchuto etorbidearen zabaltzean datza, eta erosi beharreko lursaila bost jaberena da. Inkesta publikoa 2016ko ekainaren 13tik 28ra iragan da. Ez da oharrik izan. Inkestaren arduradunak proiektuaren aldeko iritzia eman du.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du, zehatuz Bardin jaunak ezin duela bozkatu, bost jabeetako bat baita.

Bozkatzaileek aho batez onartu dute.

10 – Lursail baten erostea eta jabego publikora pasatzea, Lorezainen karrikan: inkesta publikoaren ondoko erabakia.

Bardin jaunak zehaztu du erregulartze hori jada aipatu zuela Herriko Kontseiluak; hau da, Pantxo Michelena jaunaren Lorezainen karrikako lursail baten erostea eta jabego publikora pasatzea. Inkesta publikoaren kariatara, ez da oharririk izan. Inkestaren arduradunak proiektuaren aldeko iritzia eman du.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du, zehatuz Michelena jaunak ezin duela bozkatu, bera baita lursailaren jabea.

Bozkatzaileek aho batez onartu dute.

11 – Saint Michel Garicoitz karrikako lursail baten erostea erregulartzea: inkesta publikoaren ondoko erabakia.

Bardin jaunak zehaztu du Saint Michel Garicoitz karrikako lursail baten erosketaren erregulartzean eta jabego publikora pasatzean datzala. Inkesta publikoaren kariatara, ez da oharririk izan. Inkestaren arduradunak proiektuaren aldeko iritzia eman du.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

12 – Kanpoko etxolendako antolamendu zerga.

Bardin jaunak oroitarazi du Herriko Kontseiluak, 2011ko irailaren 26an, antolamendu zerga ezartzea deliberatu zuela, herriko ekipamendu publikoen diruztatzeko, herriko lurralde osoan, %5eko tasarekin.

Herriko Kontseiluaren 2013ko azaroaren 25eko deliberamenduaren ondorioz, zero tasako maileguak dituztenendako antolamenduak ezarri ziren, hirigintza kodeari jarraiki. 2014rako LFI legearen 920. artikuluari jarraiki, herriko kontseiluek artisautza erabilerarako lokalak eta aitzinetik deklaratu behar diren kanpoko etxolak antolamendu zergatik libratzen ahal dira, zatiz ala osoki.

Egun, 9 m² inguruko kanpoko etxolek 700 eta 1 000 € artean badio dute. Kanpoko etxolei dagokien zergak partikularrei parte hartze handiagoa eragiten dienez, eta etxolen prezioaren aldean neurritz kanpoko delak kontuan izanik, Auzapez jaunak proposatu du, azaleraren %80ko mugan, aitzinetik deklaratu behar diren kanpoko etxolak zergetarik libratzea, 2017ko urtarrilaren 1.etik goiti.

800 €ko kanpoko etxola batentzat, egun egiten dena hartzen bada adibide gisa, Estatuak herriari 705 €ko zenbatekoa inposatzen dio. Kopuru hori m² kopuruaz eta %5eko zergaz biderkatzen badugu, 317,25 €ko zerga ateratzen da. Horri 158,62 €ko departamendu-zerga eta 25,38 €ko prebentziozko arkeologia-zerga gehitu behar zaizkio. Beraz, orotara, jabeak 500 €ko zerga ordaindu behar du, 800 € erosi etxolarentzat. Horregatik proposatzen da, egun, kanpoko etxolak zergetarik libratzea, beren azaleraren %80ko mugan.

Michelena jaunak galdegin du %80ko libratze hori herriaren zatiari bakarrik dagokion.

Bardin jaunak baietz erantzun dio; departamendu-zerga eta arkeologia-zerga ez ditu Herriko Kontseiluak bozkatzeko. Zehaztu du libratze hori 0 eta 20 m² arteko azalera duten kanpoko etxolei bakarrik dagokiela. Handiagoak ez dira libratzen.

Bacardatz jaunak galdegin du oilategiak kontuan hartuko diren, eta zer jotzen den kanpoko etxolatzat: teilatudun hespil hetsiak? “Ez dira bortxaz Castoraman erosi etxolak.”

Bardin jaunak ihardetsi dio duela zenbait urte ez zela beharrezkoa kanpoko etxolen deklaratzeari. Baina etxola norberak egin dezake, eta 800 € baino gutiago gosta da.

Bacardatz jaunak gehitu du hobe dela 2017ko urtarrilaren 1.a itxoitea.

Bardin jaunak baieztatu du, eta zehaztu du zerbitzuek aitzin deklarazio bat eskuratzen badute, igorri duen herritarrari erranen zaiola 2017ko urtarrilaren 1.a itxoiteko txostenaren aurkezteko. Beraz, egun bozkatu behar da, aldaketa hori heldu den urtarrilaren 1.ean kontuan hartu ahal izateko.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du Kanbo osoan ibili beharko den kanpoko etxolen atzemateko.

Bardin jaunak erantzun dio libratze hori kanpoko etxola berriei dagokiela, oraindik goiti deklaratu direnei.

Michelena jaunak uste zuen betoizko oinarria zelarik bakarrik deklaratu behar zela. Kanpoko etxola lur gainean ezartzen bada, haren ustez, ez da deklaratu behar.

Bardin jaunak ezetz erran dio.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

13 – Herriko larre eta pentzeen berritzea:

a) Herriko pentzeen berritzea.

Etchelecu jaunak oroitarazi du sei lursailez ari garela, kontratu pean baitaude, 2007ko urriaren 18ko deliberamenduaren ondorioz, eta kontratu horiei epea bukatuko baitaie 2016ko abenduaren 31n: Albert Arotçarena jaunarendako, B n°459 kadastra-zatia; Dominique Bonçon jaunarendako, B n°145 kadastra-zatia, Hegala izenekoa; Michel Eyheraburu jaunarendako, B n°820 kadastra-zatia, Mokorra izenekoa; Philippe Martinon jaunarendako, B n°312 kadastra-zatia, Erresagar izenekoa; eta Henri Mongaboure jaunarendako, A n°281 kadastra-zatia, Ibarboureko borda izenekoa. Azken kontratu bat bada, epe ezberdina duena, 2016ko apirilaren 30ean bukatzen baita: Pierre Darthayette jaunarendako B n°7312 kadastra-zatia, Paskaleku izenekoa.

Herriak onuradun guziei dei egin die gai horri buruz. Baiezkoa eman dute denek, batek salbu: Dominique Bonçon jaunak egun adierazi digu azkenean ez duela kontratua berritu nahi. Beraz, kadastra-zati horri buruz berriz deliberatu beharko da, kandidatura-dei bat egin ondoan.

Gainerateko kontratuentzat, eta baserialdeko kontratuei buruzko preskripzioak kontuan izanik:

- lursailen azalera kontuan hartuta, alokairua baserialdeko kontratuen estatutuaren arabera da.
- 2016ko irailaren 16ko 64-2016-09-16-010 prefektura-erabakiari jarraiki, lursailak 4. mendi-eremuan sailkatuak dira eta beren kategoria lurren kalitatearen eta ustiapen ahalen arabera da,

- Itsas Arrantzako Baserrialdeko Kodeko L411-11 artikuluari eta baserrialdeko alokairu kontratuen Frantziako indizearen oinarriari jarraiki, 2016rako 109.59 2016ko uztailearen 13ko ministerio-erabakiaren ondorioz,
- urteko baserrialdeko alokairu kontratua gutieneko eta gehieneko zenbatekoen artean finkatzen da, baina aitzinetik izenpetuak izan diren kontratuei jarraiki,
- alokairuaren zenbatekoa urte guziz berrikusten da, baserrialdeko kodeari jarraiki, baserrialdeko alokairu kontratuen Frantziako indizearen aldakortasunaren arabera.

Beraz, Herriko Kontseilua kontratu horiek bederatzirako berritzea onartzera deitu da, 2017ko urtarrilaren 1etik goiti, Pierre Darthayette jaunarentzat salbu, haren alokairu kontratua 2016ko maiatzaren 1.ean hasi baitzen; bestalde, Herriko Kontseiluari galdegiten zaio sei jende horien baserri-kontratuak izenpetzeko baimena eman diezaion Auzapez jaunari, Dominique Bonçon jaunarena salbu, kontratu horrendako kandidatura-deialdi bat eginen baita.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

b) Elhorrikomendiko herriko lur batzuen alokatzea.

Etchelecu jaunak oroitarazi du lur horiek Elhorrikomendia izeneko lekuan daudela. Kadastra-zati zenbait dira, eta orotara 2ha 44a 62ca-ko azalera dute. 2004az geroztik, Alexandre Larre jaunak ustiatzen zituen. Azken hori erretretara joanen denez, eskura ematea etetea galdegin du, laborari gazte gisa plantatzen ari den Nicolas Larre bere semeak lur horien ustiapenaren segida har dezan. Lur horiei aitzineko puntuan aipatu baserrialdeko kontratuen araudiari buruz aipatu erabaki berak dagozkie.

Herriko Kontseiluak iritzia eman behar du Nicolas Larre jaunarendako baserrialdeko alokairu kontratu baten izenpetzeari buruz, eta bestalde, baserrialdeko alokairu kontratuen araudiari jarraiki, alokairuaren zenbatekoa finkatu behar du, jakinez Auzapezak gutieneko zenbatekoa proposatzen duela, hau da 43,98€. Gutienekoaren eta gehiengoaren artean 56,26 €ko tartea da urtean, beraz ez dio herriaren finantza-osasunari eragiten. Sinbolikoki, herrian plantatzen den gazte baten aldeko jestua da.

Auzapez jaunak gehitu du Elorri-Mendin dela. Bestalde, jende horrek berak iratzeleku bat alokatzen dio Departamenduko Kontseiluari; alabaina, azken hori da mendixka horren jabe, natur gune suntsikorra baita.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

c) Kanbo behereko Errepera bideko herriko lurren alokatzea.

Etchelecu jaunak oroitarazi du lursail hori Kanbo behereko Errepera bidean dagoela, ur araztegitik hurbil-hurbil. 1ha 03a 90ca-ko azalera du, eta badu zenbait urte Michel Dagorret jaunak, Mendi-Artea GAECarekin, ustiatzen duela, ahozko adostasunarekin.

Aitzinetik aipatu erabaki berei jarraiki, deliberatzea komeni da, bai alokairuaren zenbatekoa finkatzeko, bai baserrialdeko kodeak proposatu kategorien arabera sailkatzeko.

Iduriz, bi kategoriatan sar daiteke lursail hori, kalitatezko lurra baita, biperren lantzeko ustiagarria dena: salbuespenezko kategoria (lur sanoak, iraulgarriak, lauak edo malda ttipikoak, eguzkitsuak, iraulketarako trabarik gabekoak, gutienez 1 ha-koak eta aise irisgarriak) ala lehen kategoria (lur sanoak, iraulgarriak, aski eguzkitsuak, egungo ohiko tresnekin mekanizagarriak).

Azken kategoria hori hautatzea proposatu du, nahiz eta eztabaidagarria izan. Zehaztu du lur horrek uholde arriskua duela, eta horrek bere kalitatea doi bat apaltzen duela; aitzineko gogoetaren hari beretik, proposatzen du alokairuaren zenbatekoa apalena izatea; hau da, urtean 114,31 € hektareaka. Alabaina, herriaren buxetari arras guti eraginen dio, gutienekoaren eta gehiengoaren arteko ezberdintasuna 20 €koa baita, luraren azalera kontuan izanik.

Michelena jaunak ohartarazi du eskura izan duten kadastra-planean, lursail hori “larre” gisa sailkatua dela. Kadastra-plano horren sailkapena da kontuan hartzen, zergentzat, asurantzentzat eta MSarentzat, adibidez. Hori harmonizatu behar litzateke; edo lur iraulgarria da, edo larrea.

Etchelecu jaunak erantzun dio lur iraulgarria dela.

Auzapez jaunak gehitu du Estatuak herriari saldu dion lursail hektarea dela. Lursail hori Errobi ibaiaren baitakoa zen. Estatuak kontuan hartu zuen lursail hori Errobiko ur gorenetatik kanpo zegoela, eta beraz, herriari saldu nahi izan zion. Dagorret jaunak jada lur hori ustiatzen zuen, tituluarekin ala gabe; horregatik proposatu zaio horrela erregulartzea.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

14 – Justizian ekiteko gaitasunaren ematea.

Auzapez jaunak oroitarazi du Herriko Kontseiluak, 2014ko apirilaren 7ko deliberamenduz, Lurralde Elkargoen Kode Orokorrari jarraiki, auzapezari gaitasun zenbait ematea onartu zuela, hainbat gairentzat; horien artean, “herriaren defenditzea, bere kontra abiatu justizia-ekintzetan, kasu guzietan”.

Herriaren abokatuak aholkaturik, deliberamendu hori aldatu zen, 2015eko apirilaren 13an, ordezkariak horren hedapenaren zehazteko: “Herriko Kontseiluak Auzapez jaunari ordezkariak ematen dio herriaren izenean justizia-ekintzen abiatzeko, auzitegi zibil, administratibo eta penaletan; errepresio auzitegiaren parte zibil gisa plantatzeko; herriaren kontra abiatu justizia-ekintzetan herriaren defenditzeko, auzitegi zibil, administratibo eta penal guzietan, bai lehen instantzian, bai helegitean, bai kasazioan”.

Zehaztu du gai horretan jurisprudenzia ez zela segura, eta beraz, herriaren abokatuak gai bakoitzarentzat deliberatzea aholatzen duela. Beraz, Herriko Kontseilua deitzen du lau deliberamenduren hartzera.

a) Cazauran kasua.

Auzapez jaunak jakinarazi du norbaitek prezio apalean Marieniako zerritegi ohi bat erosi ziola Pierre Larrondo zenari. Ondotik, bizitzeko etxe bilakatu zuen, eraikigarria ez den eremu batean. Beraz, auzibidea izan zen, eta jendarmerian salaketa egin zen. Orain, kasua auzitegian da. Auzitegiaren aitzinean herriaren egoerari indarra emateko eta galdea onargarria dela segurtatzeko, Herriko Kontseiluari galdegin zaio justizian ekiteko gaitasuna emateko deliberamenduaren hartzea.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du kasu bakoitzarentzat bozkatu beharko den.

Auzapez jaunak baietz erantzun du, eta zehaztu du printzipioa ez dela kasuari buruzko iritzia ematea, baizik eta justizian ekiteko baimenaren ematea. Forma eta prozedura kontua da, ez du funtsa aldatzen.

b) Alaman kasua.

Auzapez jaunak oroitarazi du bere zerrendako eta bere taldeko kide batzuek bigarren kasu hau luzaz aipatua dutela jada. Herriaren eta arkitekto baten eta bere emaztearen arteko afera da, eraikitze baimen baten preskripzioak ez betetzeagatik. Pertsona horrek etxe bat eraiki du. Teilatua teilazkoa izan behar zela zehaztua zen, baina arkitektoak azaldu du tronpatu zela, maldarengatik zaila zela teilen ezartzea, eta erabaki du zinkezko teilatu baten egitea, herriari aipatu gabe.

Auzapez jauna pertsona horrekin bildu da; azken horrek onartu du huts egin zuela, ez baitzuen aldaketarik galdegin. Bitarteko aterabide bat proposatu du; hots, zink hori gorritz tindatzea. Hastapenean zati bat tindatu zuen, eta orain osoki tindatua du. Auzapez jaunak gehitu du urrundik ez duela txokutzen; baina, bere lankideek galdeginik, zuzenbidea errespetaraztea, eta beraz, justiziariei egitea hitz eman du.

Kasu hori epaitua izanen da, eta herriaren posturari indarra emateko, Auzapez jaunari justizian ekiteko baimena ematea komeni da.

c) Ebasketa kasua.

Auzapez jaunak oroitarazi du gizon gazte bati dagokiola kasua; gertakarien denboran, adingabekoa zen. Gazte horrek talde ebasketa larriagotuak egin zituen, 2015eko irailean eta 2015eko azaroaren 9an. Eskola publikoan eta herriaren errugbi klubarendako elkarte-lokalean egin zituen ebasketak. Gazte hori herriak hurbil-hurbiletik zaintzen duen talde batekoa da. Haietako bat izan zen gidari afera horretan. Taldeko 3 edo 4k hondaketak, ebasketak, berina-haustekak eta berinazko ate haustekak eginak dituzte. Behin baino gehiagotan auzitan jarriak izan dira. Beraz, Auzapez jaunak justizian ekiteko baimena galdegiten du.

d) Mourgue kasua.

Auzapez jaunak oroitarazi du Paskalekun oilaskoak hazi nahi dituen pertsona bati eman zaion baimen bati buruzkoa dela kasu hau. Pertsona horrek lanbidea utzi du laborantza ikasketak egiteko, eta laborari estatutua lortu du. Garaian, Herriak laborantza baimena lortzeko irizpide guztiak zituela jo zuen. Jakinarazi du Herria behin baino gehiagotan pleinitu zela jende batzuek laborantza eraikinak bertze erabilera batzuetarako aldatzen dituztelako, eta Prefetari eta Errepublikako Prokuradoreari behin baino gehiagotan idazteko askatasuna hartu zuela, ironia doi batekin. Erantzun zioten, eta kasu hau doi bat zorrotz interpretatu zuten; beraz, administrazio auzitegian epaitua izanen da. Gaiaren funtsari eragin gabe ekintza horren legezkontasunaren bermatzeko, Herriko Kontseiluari justizian ekiteko baimena galdegin dio.

Hiriart-Urruty andreak galdegin du hirugarren kasuan zergatik gizon bat bakarrik aipatzen den, talde-ebasketa izanik.

Auzapez jaunak zehaztu dio gertakarien denboran gaztea adingabekoa zela. Beraz, zigor-prozedura berezia da, adingabekoendako ganberan pasatuko baita. Horregatik bereizi dira bere kasua eta auziperatuak izan diren besteena.

Hiriart-Urruty andrea harritzen da gaztearen izena agertzen baita, gertakarien denboran adingabea zelarik.

Auzapez jaunak erantzun dio gainerateko kasuetatik berezia izan dela, besteek jada aterabidea izan baitute. Zehaztu du bera izan zela hobendun nagusia, eta beste pertsonen izena baduela.

Aiçaguerre andereak adierazi du ez dituela izenak jakin nahi, baina harritua izan dela eskuratu dituen dokumentuetan adingabeko baten izena ikustean.

Auzapez jaunak onartu du hobe zitekeela izena ezabatzea, huts bat izan dela. Zehaztu du kasu hori helegitean dela, herriko eraikin batzuk hondatzeagatik.

Hiriart-Urruty andereak uste du gazte hori oraino adingabea dela, auzialdia urriaren 19an baita. Adingabeko gazte baten izena ikusteak zinez harritu du.

Auzapez jaunak gehitu du harrigarria dena bere izena prentsan agertzea eta ezagutua izatea dela. Bere izena ez da deliberamenduan agertuko, eta zehaztu du hautetsiek herriaren lurraldean gertatzen denaren berri izateko eta hobenduna nor den jakiteko eskubidea dutela. Gazte horiek hiru edo lau aldiz gaizki berak egin dituzte.

Bacardatz andereak ohartarazi du bizitokietatik urrun diren herriko lokaletan (futbol lokal ttipian, Zabalkin, errugbi lokalean) gero eta maizago gertatzen direla nahizko hondaketak eta ebasketak. Ez ote da alarmak ezartzea pentsatu behar?

Auzapez jaunak ihardetsi dio ezin direla alarmak denetan eman. Elkaratek ere ematen ahal dituzte alarmak beren eraikinetan.

Hiriart-Urruty andereak zehaztu du hirugarren kasuan ez duela bozketan parte hartuko, dagokion gaztea lanbidez ezagutzen baitu.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da, salbu hirugarren kasua, Hiriart-Urruty andereak ez baitu bozketan parte hartu.

15 – 2017 tarifak.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak Herriko Kontseiluko kideek eskuratu dituzten dokumentuetan aldaketak izan direla jakinarazi du.

Arnagako sarreretan dira aldaketak, 2016ari begira: helduen taldeentzat, 6,80 €ko tarifa proposatzen da, 6,50 € orde; jende elbarrituen taldeentzat, 350 € proposatzen da 2,50 € orde, eta kuristentzat eta irakasleentzat tarifa berezi baten baliatzea proposatzen da.

Egonaldi zergari dagokionez, zehaztu du, iaz bezala, zenbatekoak Herri Elkargoaren erabakiaren arabera finkatu direla. Aldaketa bat bada 3 eta 4 izarretako kanpalekuentzat; hots, zenbatekoa 0,60 €koa da eta ez 0,55 €koa.

Auzapez jaunak zehaztu du azken Elkargo Kontseiluan aipatua izan dela, eta beraz, zenbaki osoak ez direnak ezin direla gehiago bozkatu. Gaineko edo azpiko zenbaki osora borobildu behar da.

Gelen eta materialaren alokatzeko tarifei dagokienez, zerbitzuetako zuzendari nagusiak adierazi du ezker paretan aldaketak izan direla: 75 € proposatzen da 150 € orde Kanboko elkarateentzat, urririk diren gertakariarentzat; 150 € proposatzen da 300 € orde, Kanboko elkarateentzat, ordaintzen diren gertakariarentzat; 400 € proposatzen da 600 € orde Kanbotik kanpoko elkarateentzat, urririk diren gertakariarentzat; 1 000 €, 1 300 € orde, Kanbotik kanpoko elkarateentzat, ordaintzen diren diren gertakariarentzat; eta 1 100 € 1 500 € orde, pribatuentzat. Zehaztu du 2016 urtearen zutabea dauden zenbatekoak okerrak direla; 2016ko deliberamendukoak, aldiz, zuzenak dira. 2016ko zenbatekoak 2017an berriz baliatzea proposatu du.

Azkenik, Arnaga ezkontzendako alokatzeari buruz, 2017rako, 6 000 € ezarria zen kanboarrentzat eta 7 000 € Kanbotik kanpokoentzat; horiek 4 000 € eta 5 000 €-a aldatzea proposatu du.

Lespade andereak galdegin du zergatik ordainduko luketen kuristek merkeago erakustokiko sartzea.

Auzapez jaunak zehaztu du Pontacq anderea hor ez denez, ez dela segur, baina bere ustez, urte guziz jiten diren kuristei Arnaga berriz bisitatzeko gogoia ematea dela xedea.

Bacardatz andereak galdegin du nola identifikatzen diren kuristak.

Auzapez jaunak umorez erantzun dio, baina soinekoz agertzen direnek merkeago ordainduko dutela. Kuristen gaia kentzea eta hurrengo Herriko Kontseiluan berriz aipatzea proposatu du, Pontacq andereak behar diren azalpenak eman ditzan.

Hiriart-Urruty anderea harritua da ikustea elbarrituen tarifa emendatzen baita, eta kuristena apaltzen.

Auzapez jaunak adierazi du prezioak begiratu behar direla, hala ere. Frantziako museo guzietan, sartzeen batez besteko prezioa 10 eta 12 € artekoa da. Arnagan, talde tarifa 8 €koa da eta elbarrituentzat 2,50 €tik 3,50 €-a pasatuko litzateke. Uste du urrikeri izatea eta tarifa apal baten ezartzea ez dela arras gauza bera. 3,50 € ez da gehiegizkoa, ezta gutiagorik ere, bertze tokietan baliatzen diren tarifekin konparatuz.

Hiriart-Urruty andereak zehaztu du heldu elbarrituendako diru-laguntza ez dela handia, eta elbarrituendako prezioaren emendatzeak kulturatik urundu ditzakeela.

Michelena jaunak gehitu du elbarrituek ezin dutela etxea bisitatu.

Auzapez jaunak baieztatu du oraingoz ezin dutela etxea bisitatu, dispentsa baitu.

Hiriart-Urruty andereak gehitu du arrazoi bat gehiago dela tarifa osoa paga ez dezaten.

Auzapez jaunak erantzun dio ez dela gehiegizkoa 3,50 € ordaintzea, taldeka izanik ere. Ez da zenbateko handia, hala ere.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du elbarritu anitzek bisitatzen duten Arnaga. Uste du ez litzatekeela galera handia izanen Arnagako sartzeetan.

Auzapez jaunak ihardetsi dio kategoriakako zenbakiak ez dituela. Gehitu du printzipio eta logika kontua dela, beste gune batzuei begira. Pontacq andereari galdeginen dio tarifa horiek begira ditzan, bertze gune batzuekin konparatuz. Kuristen proposamena kentzea proposatu du, Pontacq anderearen azalpenak izan arte, jakiteko zergatik egin duten proposamen hori Labat andereak eta biek.

Aiçaguerre andereak zalantzak ditu Arnagaren ezkontza zerbitzuari buruz: 4 000 edo 5 000 €, galdegin du zer den tarifa horien barne.

Auzapez jaunak zehaztu du herriak zalditegietan ezkontzak antolatzea proposatzeko ideia izan zuela, beharrezko antolamenduekin, oihal-etxerik ez dadin izan, apainak izanik ere, laranjen negutegiaren zelaigunean. Pontacq andereak jakinarazi du jende batzuek jada opzioak emanak zituztela, eta bestalde, obrak eginak ez diren bitartean, goizegi zela, beharbada, gai horri buruz

deliberatzeko. Ideia zen prezioen emendatzea, zerbitzuetako zuzendari nagusiak erran bezala, oihal-etxerik ez litzatekeelako gehiago alokatuko. Hobe da emendatze hori 2018ra gibelatzea eta ikustea 2017an herriak antolamendu obrak egiten ahalko dituzenez, ttipiak izanik ere, zalditegiak erakargarriagoak izan daitezzen ezkontzen antolatzeko. Horregatik proposatzen dira 4 000 eta 5 000 €ko tarifak.

Auzapez jaunak gehitu du zerbitzu horrek Arnagaren bisita bat hartzen duela barne, cocktail denboran, arratsalde hondarrean.

Aiçaguerre andereak adierazi du zerbitzu hori arratsalde ezkontzen direnendako dela bakarrik. Orain, gero eta gehiago, goizez ezkontzen dira jendeak.

Auzapez jaunak gehitu du zerbitzu hori gunearen ordutegietatik kanpo dela. Jendeak cocktailerako jiten dira, eta museoaren bisitatzea proposatzen zaie. Laranjen negutegia eta sukaldea ere eskura ematea barne dira; noski, oihal-etxeak ezkontza antolatzen dutenek dituzte alokatzen.

Bacardatz jaunak galdegin du zer ezberdintasun den 50 jendetik beheetik bestentzat.

Auzapez jaunak zehaztu du batzuek cocktail bat egin nahi dutela 19etatik 21etara, eta ez direla gauaren parte handi batez egoten; beraz, ez dute elektrizitatea berdin kontsumitzen. Besta mugatuagoa da, kopuruz eta denboraz; horregatik du tarifa berezia. Batzuetan, enpresa batzuek cocktail bat antolatu nahi dute 19etatik 22etara, ezin zaie 200 jenderendako ezkontza batendako baliatzen den tarifa bera galdegin.

Aiçaguerre andereak ohartarazi du hilabeteko alokairuentzat, Arnagako kontserbatzailearen apartamendua eta hilerriko atezaindegia eskas direla, eta ohartu da apezetxearen alokairua 311 €koa dela hilabetean eta ez urtean, iaz bezala. Apartamendu horietako bakoitzaren azalera idatzia izan dadin nahi luke, ez baitu konparatzeko daturik. Azken ohar bat egin du 2012tik 2017rako alokairuei buruz: 30 € inguru emendatu dira, etxe atxikiarena (Mornon) salbu, kasik 100 € emendatu baita. Jakin nahi luke zergatik emendatu den hainbeste.

Auzapez jaunak erantzun dio obra handiak izan direla, eta horregatik emendatu dela. Elkarri datxizkion bi etxe dira, lehen suhiltzaileen bizitokiak zirenak. Lokal bat osoki berritua izan zen, hondamendi bat gertatu baitzen. Bestean, iragazgaitasun obra guziak berriz egin dira. Beraz, normala da beste etxearen tarifa berera heltzea, bi etxeak berdinak baitira. Bi eraikinen artean, egoera zen ezberdina. Orain, tarifa bera dute biek, zuzentasuna xede.

Aipatu apartamenduentzat, zerbitzuetako zuzendari nagusiak zehaztu nahi izan du zerbitzuek ez dutela datu hori ahortzi. Hautetsi batzuek ahortzi dute beharbada, deliberamendu bat hartua izan baitzen jada joan den ekainean, apartamendu horiei buruz. Alokairuak urtean behin eguneratzen dira. Apezetxeari dagokionez, tarifa urtekoa da.

Auzapez jaunak gehitu du alokairuak zaintza hartzen duela barne, herri gehienetan egiten den bezala. Alokairua apezaren zaingoak konpentsatzen du. Alokairua guziz sinbolikoa da. Denek ongi ulertzen dute apezak apezetxea eta eliza zaintzen dituela, eta beraz, apartamendu bat proposatzen zaiola, beregain hartzen duen lanari dagokion alokairuarekin.

Aiçaguerre andereak apezetxearen azalera zein den jakin nahi luke.

Auzapez jaunak ohartarazi dio, zalantzak bazituen, araudiari jarraiki, hobe zuela bilkura aitzin jakinaraztea, bilkura prestatu ahal izateko. Gogotik emanen lituzke informazio zehatzak. Ez dio 22 orenetan zerbitzuetako zuzendari nagusiari galdeginen dokumentuetan apezetxearen azalera xerka dezan. Galdera zehatzak baldin badira, jendetasunez jakinarazi behar dira, 48 oren edo

gehiagoko aitzinamenduarekin, eta orduan, erantzun zehatzagoak ematen ahalko ditu. Gehitu du ez dakiela Kanboko apezetxearen azalera zenbatekoa den. Badaki jaun apeza bizi dela han, eta batzuetan apezgaiak ere joaten direla. Garai honetan, bi dira, asteburu guziz. Kanboko apezetxeako gelak berralokatzea ez da pentsatu ere egin behar. Alokatzeko balioa ez da arras berdina.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Gehiengoak onartu du. Hauek abstenitu dira: Hiriart-Urruty anderea, Bacardatz jauna, Aïçaguerre anderea eta Michelena jauna.

16 – Diru-laguntza.

Auzapez jaunak jakinarazi du bi diru-laguntza bozkatu behar direla gaur.

Lehenik, Reli Revi 64 elkarteak egin duen galdea. Herriak gaia osatugabea zela jo zuen, ez baitzekien segur tokiko elkarerik bazen ala ez, Reli Revi eskualdeko elkartea baita. Elkarteko arduradunak baieztatu du tokiko antena bat badela, eta suprefeturan aurkeztu estatutuak helarazi dizkio.

Elkarteak 3 000 € galdegin zuen lehenik, eta gero 2000 €, salbuespeneko laguntza gisa. Herriak gehiegizkoa dela jo du, eta 300 € diru-laguntza proposatu du.

Bigarren galdea Kanboko Errobi Ikastolak egin du. Auzapez jaunak joan den uztailean eskuratu zuen galdea. Elkarte horrek ohartarazi dio Kanboko ikastolaren 40 urteak kari, hainbat kultur gertakari antolatuta zirela, eta herriari denendako interesgarriak diren gertakariak ekartzen zizkiola. Elkarteak kultur programa bat prestatu du, eta beraz, urte guziz ematen zaizkion 860 €ez gain, 1000 €ko salbuespeneko diru-laguntza ematea proposatu da; hau da, orotara, 1 860 €.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

17 – Herriko turismo bulego baten mantentzea.

Auzapez jaunak adierazi du gai hori zinez garrantzitsua dela, eta Errobiko ordezkariari zaila izan zaiela ikuspegi zuzen baten ukaitea, bi arrazoiengatik. Turismo bulegoen gaian, lege eta gobernu lausotasun handia da: aldaketa anitz, iragarpenak berant eginak, edo gauzatu ez direnak, edo azken mementoan, gutien ustean, gauzatu direnak. Horrez gain, Ipar Euskal Herriko elkargoa sortuko da, Hirigunea. NOTRe legearen arabera, turismo promozioaren gaitasuna izanen du, turismo bulegoen sortzea barne, baina elkargoak hartuko duen gaitasun horren hedadura ez da argi. Hazparneko tailerrak iragan dira, eta “gobernantza eta gaitasuna” lehen batzordea lehen aldiko bildu da, Hiriburuko herriko etxean. Baina tokian toki gertatuko denaren ikuspegi argirik ez dugu oraino, eta Frantzia mailan segurtasun falta are handiagoa da.

Adibidez, NOTRe legeak finkatu du turismo promozioa eta turismo bulegoen sortzea elkargoen esku zela eta ez gehiago herrien esku. Baina, aldi berean, turismoko oportunitate sailkatuentzat, adierazten du herriek elkargoei galdegiten ahal dietela herri arteko kudeaketako turismo bulego baten atxikitzea, baina herri arteko ordezkariak herriko ordezkariak izanik.

Turismo oportunitate sailkatuetako ordezkariak Manuel Valls lehen ministroari galdegin zioten gauzak alda zitzan gune horiendako. 2015eko agorrilaren 8ko legeak ez zuen oraino urtea bete, eta jada aldaketak iragartzen ziren. Mendiko oportunitate kongresuan, hautu hori baieztatua izan zen.

Auzapez jaunak gehitu du uda arte bagenekiela gobernuak mendiendako lege proiektu bat prestatzen zuela, eta lege horren arabera, mendi guneko oportunitate sailkatuek, NOTRe legegari dispensaz, herriko turismo bulego bat atxikitzen ahalko zutelako, herriak diruztatua, eta ez herri artean kudeatua.

Estatu Kontseiluari dei egin zitzaion, lege edo dekretu proiektu ororentzat bezala, eta iritzi aski ironikoa eman zuen, erranez gobernuak ikuspegia etengabe aldatzen zuela, eta pentsatu epeak

ezingo zirela beharbada denak bete. Eta batez ere, funtsezko lege-gai bat azaleratu zuen, eta gobernuak abisatu zuen kasu egin behar zuela, turismoko oporleku sailkatuentzat berdintasuna eteteko arriskua baitzen.

Ondorioz, biharamunean, Jean-Michel Baylet turismoaren Estatu idazkariak Ministroen Kontseiluari lege proiektu zuzendua aurkeztu zion, 18. artikulua aldatuz. Bertsio berri horrek zehaztu du, 2015eko agorrilaren 7ko NOTRe legeari dispentsaz, turismo oporleku sailkatuek herriak kudeatu turismo bulegoa atxikitzen ahalko dutela, Herriko Kontseiluek deliberatuz, baldin eta 2017ko urtarrilaren 1.a aitzin egiten badute, egun horretan NOTRe legea turismo bulegoei osoki egokituko baitzaie.

Beraz, gobernuak, azken mementoan, jokoaren araua aldatu du, lege-proiektu horrekin, turismo oporleku sailkatuen lobbyari arrazoi emanez. Jakin behar da herri horiek biziki turistikoak direla eta inbertsio indar handia egin dutela “turismo oporleku sailkatu” bikaintasun labelaren lortzeko. Gehitu du Kanbo 1924z geroztik oporleku klimatiko sailkatua dela eta label hori lortu duela, indar handiak eginez, turismo bulegoa lehen kategoriara igoateko; “turismo oporleku sailkatu” labela lortu du, hau da, arlo horretan bikainena, Baionako hiria aitzin gainera.

Bestalde, turismoaren arloko profesionalek ohartarazi dute Kanbok toki berezia duela Euskal Herrian, “gizarte segurantzaren”-ko 14 000 kurista baino gehiago dituen ur hiri bakarra baita. “Osasun artamendu”-ekin, urtean 17 000 eta 18 000 jende artean joaten da bainuetxera. Kanbo Frantziako 9. oporlekua da, Ipar Euskal Herriko lehena, baita departamenduko lehena ere.

Legea azken momentuan aldatu denez, Auzapez jaunak Herri Elkargoari dei egin dio jakinarazteko, aho batez, bere taldeak erabaki duela, datu berriak kontuan izanik, herriko turismo bulegoaren mantentzea, turismo oporleku sailkatu gisa.

Azalpen horren bukatzeko, gehitu du gero ere posible izanen dela, gauzak antolatua eta segurtatua izanen direlarik Ipar Euskal Herriko hirigunean, turismo bulego bateratua sartzeko; alderantzizkoa, aldiz, ezin da egin. Herriak ez du parada hori galdu behar. Gure herriko turismo bulegoa atxikitzea galdegin behar da, eta gerora, ikusiko dugu, hemendik urte batera edo bira, elkarrekin lan egiten ahal dugun. Donibane Lohizune izan da herri arteko turismo bulegoaren hautua egin duen bakarra, duela jada sei hilabete. Hendaia, Bidarte, Biarritz, Angelu eta Baiona ere turismo oporleku sailkatuak dira, eta herriko turismo bulegoaren atxikitzea hautatu dute. Auzapez jaunak publikoki zehaztu nahi izan du, bai Biarritzen, bai Baionan, gai horrek talde politiko guzien aho bateko adostasuna lortu duela. Lausotasun handia denez, bai Frantzia mailan, bai tokian toki, Auzapez jaunak uste du hobe dela hautu horren egitea, jakinez Ipar Euskal Herriari ere mesede egin deizaiokeela.

Didier Irastorza jaunak, bilkuran ez baita, jakinarazi du proposamenarekin ados dela eta, noski, Devèze jaunari ahalordetza eman dio, alde bozka dezan. Auzapezak barkamena galdegin du, azalpenak luzeak izan baitira, baina uste du gauzak ongi antolatu arte, Frantzia mailan eta Ipar Euskal Herriko hirigunea izanen denaren baitan turismoaren egoera argitu arte, garrantzitsua dela, dudarik gabe, hautu horren egitea, eta gerora, hala erabakitzen badugu, aldatzea, kontrakoa ez baita posible.

Jean-Claude Iriartek bere blogean idatzi duena aipatu du: “herri arteko kohesioa eta osagarritasuna sostengatzen ditut. Aldi berean, zilegi iduritzen zaigu herri arteko politika hori Baionari dagokion turismo bulegoan oinarritzea, lurraldearen berezitasunetarik hurbil elikatua eta gauzatua izan dadin”.

Auzapez jaunak adierazi du beharbada berriz deliberatu behar dela legea bozkaturia izanen delarik. Herri elkargoari Kanboko herriaren hautua jakinarazi dio; hau da, herri gaitasuneko turismo bulegoaren atxikitzea. Legea ez bada bozkatzen, orduan, Errobi Herri Elkargoaren bidea segitu behar da, eta espero du beste Herri Elkargoekin arituko direla, elkarrekin zerbait eraikitzeko.

Hiriart-Urrutyk erran du joan den irailean Herri Elkargoak bildu zela bere turismo gaitasunen hedapenaren bozkatzeko; galdegin du segida zein izan den, joan den astean bertze Elkargo Kontseilu bat baitzen egonaldi zergari buruz.

Auzapez jaunak ihardetsi dio ez zuela bozketan parte hartu, ez baita biziki logikoa herri arteko egonaldi zerga baten bozkatzea Kanbori ez badagokio. Ez da kontra, baina ez du bozketan parte hartu.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du Herri Elkargoko gainerateko hamar herri eta herrixkek turismoaren gaitasuna partekatuko duten, eta Kanbo bereiz geldituko den.

Auzapez jaunak erantzun dio Kanbok turismoaren gaitasuna partekatzen ahal dutela, zeren eta, gisa guziz, NOTRe legeak horrela pentsatua baitu. Baina jakin behar dena da noraino goazen gaitasun horretan. Zalantza hori da oraino hor dena, bai Frantzia mailan, bai tokian toki.

Hiriart-Urruty andereak Auzapez jaunari oroitarazi dio Herri Elkargoaren azken bilkuran planteatua izan zela barnealdeko turismo bulego guziekin biltzea, Xiberoko, Garazi-Baigorriko, Bidaxuneko eta Amikuzekoekin, Euskal Herri Lur eta Mendi labelaren inguruan, eta galdegin du proiektu hori zertan den.

Auzapez jaunak zehaztu du legearen “mendiaren 2. akta” 18. artikulua ez bada bere horretan bozkatzen, orduan, talde horretan sartu beharko dela. Baina hori ere behin-behineko egitura izanen da, hemendik bi urtera, iduriz, turismo bulego bateratua beharko baita. Lehen lan bilkura bat izan da Kanboko eta Garazi-Baigorriko turismo bulegoen artean, Donibane Garaziko herriko etxean, eta bertan bildu zirenek ideia zinez interesgarria atzeman dute. Egia da egun aldatzen dugula, legea hain segur aldatuko dela, baina noski, norabide horretan lan egiten segitzen dute, eta domaia atzematen dute Kanbok legearengatik hautua aldatzea, dispositiboko herri garrantzitsuena baitzen. Auzapez jaunak espero du denok sentitzen dugula duda hori, gehiengoak bezala, eta beraz, denok ados izanen garela gauzak argitu arte itxoiteko, gerorako egiazko hautuak egin ahal izateko; ez dezagun lege-aukera hori alde batera utz, Kanbori mesede egin behar badio.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du zertan den interesgarria Kanborentzat bere turismo-bulegoaren atxikitzea.

Auzapez jaunak erantzun dio Kanbo turismo oporlekua dela, baina hiria bereziki, eta bere sasoikako aktibitatea ez dela bertze herrietakoekin konparatzen ahal; bezeroak zinez bereziak dira, adin batekoak, eta urtean zortzi edo hamar hilabetez jiten dira. Ez dago, Donibane Garazin edo Ezpeletan bezala, bisitari kopuruetan gailurrik. Aktibitatea aise erregularragoa da. Kanbok turismo oporleku sailkatua defenditu behar du, etengabeko indarra izan baita 1924tik berezitasun horren kontuan harraraztea. Kanbo borrokatu da 1. mailako turismo-bulegoaren alde, Kanbo borrokatu da turismo oporleku sailkatu bilakatzeko, eta Kanbok tresna bat nahi du horretarako.

Auzapez jaunak bertze lurralde bateko gogoetak irakurri ditu azaltzeko herri arteko xedeak ez duela beti zertan herri guziei egokitu beharrik. Txostengileak baieztatu du ez dela batere egokia turismo oporleku sailkatuentzat. Alabaina, turismo bikaintasun gune horiek egiazko enpresak dira; horien baitan, eragile publikoak eta pribatuak elkarrekin aritzen dira lanean, herriko turismo bulegoaren baitan, promozioa, animazioa eta merkaturatzea segurtatzeko, lehiakor izateko ezinbestekoak baitira. Bulego horiek desagertuko balira, turismo oporleku sailkatuek tresna eraginkor eta ona galduko lukete beren lurraldearen promozioa segurtatzeko, bai Frantzian, bai nazioartean.

Michelena jaunak galdegin du nork idatzi duen hori.

Auzapez jaunak erantzun dio Saint-Tropez Golkoko Herri Elkargoko lehendakariak duela idatzi.

Etchelecu jaunak zehaztu du, Elkargo bakarraren alde bozkatu duen hautetsi gisa eta turismoaren arloko eragile gisa, doi bat gogoz kontra bozkatuko duela alde, babes postura baita, domaia atzematen baitu bertze turismo oporleku sailkatu gehienek elkarrekin lan egitearen hautua

ez egitea, Ipar Euskal Herri osoaren promozioaren alde. Bata bertzearen lehiakide gisa plantatzen gara; alta, Ipar Euskal Herriak aski irudi bateratua eta osagarria du, bertze turismo eremuen ondoan defenditu ahal izateko.

Auzapez jaunak ihardetsi du, herriko turismo bulegoak izanik ere, Ipar Euskal Herriko Hirigunearen promozio politika turistikoa egiten ahal dela. CDT Departamenduko Turismo Batzordeak Departamenduaren promozioa egiten duen bezala, egitura guziekin, uste du Ipar Euskal Herriko Hiriguneak Ipar Euskal Herriaren promozioa egin beharko duela, turismo bulego guzien adostasunarekin, edozein izanik ere haien estatutua. Segur eta fida da Baiona, Angelu, Biarritz, Hendaia, Kanbo eta bertze guziek elkarrekin lan egin nahi dutela, Ipar Euskal Herriaren promozio bateraturako, izan dadin kostaldean ala barnealdean.

Devèze jaunak gehitu du bitxia dela turismo promozioaren arloan ez dela nolabaiteko ahobatezkotasunik, aski gai sinplea baita. Kontseiluan jada azpimarratu du BAB barrutia, garaian, partekaguneetan oinarriturik osatu zela, eta zinez zaila izan zela puntu komun baten atzematea; hain zuzen, turismoa zen. NOTRe legea bikaina da, bai, baina hain segur berriz agertuko da gaur ikusten dugun hori: zalantzazko puntu gehiegi dagoela. Gaurko proposamenaz pozten da, ez gaitasun horren atxikitzeke, baina bertze gaientzat bezala, urratsez urrats aitzinatu behar delako; gai horretan argi agertu da. Auzapez jaunak erran duen bezala, itxoin behar da eta ikusi, lausotasun handia baitago. Kanborentzat, babes neurria da. Izanen dugu bat egiteko astia, iritziz aldatzekoa.

Bukatzeko, Auzapez jaunak uste du herriaren postura ez dela isolatzeko xedearen isla, Kanbo ez dela Ipar Euskal Herriaren barneko printzerri gisako bat; beharbada, Ipar Euskal Herriarendako abantaila izan daiteke.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Gehiengoak onartu du. Hauek abstenitu dira: Hiriart-Urruty anderea, Bacardatz jauna, Aïçaguerre anderea eta Michelena jauna.

18 –Errobi Herri Elkargoa: estatutuen aldatzea.

Auzapez jaunak zehaztu du bi aldaketa proposatzen direla.

a) Elkargoaren turismoaren arloko gaitasunen hedatzea.

Auzapez jaunak oroitarazi du Herri Elkargoak deliberatu duela turismo gaitasunaren hartzeko, Frantziako Presidenteak 2015eko agorrilaren 7an promulgatu NOTRe legea kari. Herri Elkargoak, urtarrilaren 1.etik goiti Hiriguneak izanen duen bezala, turismo arloan gaitasuna du, eta uste du, justuki, bai Errobik lehenik, bai Hiriguneak ondotik, Ipar Euskal Herriaren promozio bateratua bilatu beharko dutela, izan dadin kostaldearena ala barnealdearena, eta gaitasun horren zabaltzearen aski alde da.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

b) Elkargoaren kirol ekipamenduen arloko gaitasunen hedatzea.

Auzapez jaunak zehaztu du hedapen hori Uztaritzeko herriak galdegin duela. Kideei Kanboko gehiengoaren posturaren berri eman die: Hiriguneak gai anitz izanen ditu aztertzeke lehen

bi edo hiru urteetan, beraz dudan gaude kirol ekipamenduak ere, eta bereziki igerilekuak, beregain hartuko dituen. Hiriguneak, Baionak bereziki, baina bertzeek ere, ez dute herri arteko igerilekurik nahi; herriko igerilekua atxiki nahi dute, beren eskolentzat. Uztaritzeko herriak funtzionamendu arazo handiak ditu, batez ere Landagoyen igerilekuaren ekipamenduarentzat. Kanbo ados zen entsegu baten egiteko; hau da, Errobiri igerilekuen gaitasuna ematen diogu, urtarrilaren 1.ean dena Hirigunearen eskura pasatzen da, eta Hiriguneak urte bat edo bi izanen ditu erabakitzeko gaitasuna atxikitzen duen edo herriei itzultzen dien. Uste du Hiriguneak beste gastu anitz izanen dituela, bereziki euskararen arloan. Igerilekuen gaia ez da bi urteetako presazko gaietan izanen. Kanbok, hamabost urtean, Uztaritzek hogeitun urtean baino aise gehiago xahutu du igerilekuan obrak egiteko. Bada gastu anitz, beharbada, Uztaritzen. Hiru igerilekuak, Kanbokoa, Uztaritzekoa eta Zuraidekoa, Errobira pasatuko dira. Kanbok obra guziak egin ditu. Auzapez jauna ez da segur Zuraiden ere hala den, are gutiago Uztaritzen, obra anitz baitu egiteko. Bestalde, egia erran behar da, Uztaritzeko igerilekua herri artekoa da arrunt, erabiltzaileen %35 baizik ez baitira uztariztarrak.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

19 – Kudeaketa zentroa: hitzarmena.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak jakinarazi du CNRACL erakundeak diola solaskide eginkizuna Paueko Kudeaketa Zentroari ematen, Pirinio Atlantikoetako Departamenduan diren agente guzientzat. Eginkizun hori erregulariki berritzen da. Hitzarmen horrek Kanboko herriari Kudeaketa Zentroaren zerbitzuak ukaiteko parada ematen dio, CNRACLaren izenean, erretreta prestatzen ari diren edo erretreta kitatzeko txostena eratzen ari diren agente guzientzat.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

20 – Langileak.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak oroitarazi du Enpleguaren Laguntzeko Kontratua sinatu zela, duela bi urte, bi gunetan dagoen agente batekin; hain zuzen, Assantzari eta Arnagan. Bi urteko kontratua heldu den azaroaren 10ean bukatuko da. Beraz, Herriko Kontseiluari galdegiten zaio urte bateko kontratuaren egitea, 28 orenkoa, hori egiten baitu agente horrek orain arte, eta funtzio berekin: Assantzako erakusketak eta Arnagako bisita gidatuak (sei hilabetez 35 orenez eta sei hilabetez 20 orenez). Kontratu horrendako Estatuak ez du laguntza berezirik emanen. Kontratu horri esker, postua finkatzen ahalko da, eta funtzio horiek hartuko dituen langilearen lan denbora zein den zehazki jakinen dugu.

Auzapez jaunak gehitu du artxiboen zerrendatze lana egina izan dela, baina hala ere, uste du denbora eman behar zaiola Assantzari, bizi dadin; batez ere, erakusketen antolatze eta erakusketa batzuen zaintzeko, baita egunerokoaren segimenduaren egiteko ere. Beraz, uste du egungo enplegu maila bera atxiki behar dela, eta ez ttipitu. Zehaztu du kontratuak ez diola langileari galerarik eraginen, kontratupeko lan denboraren zati bat bere zahartasunean sartuko baita arlo publikoan sartuko delarik.

Hiriart-Urruty andereak galdegin du lan denbora ezin zaionez emendatu, 28 oren guti baita. Langile horrek 35 orenez lan egiten du udan, eta 20 orenez neguan, baina beharbada eskolekin lan egiten ahalko luke. Gehitu du Assantzako erakusketak zoragarriak direla, bereziki azkena, Echevarriari buruzkoa, bikaina zela.

Auzapez jaunak zehaztu du Echevarriari buruzko erakusketa loriagarria zela, Angeluko hiriarri esker, berak prestatu baitio “Mio Cid” multzo hori. Gehitu du Tillacen erakusketa duela, batez ere, langile horrek sortu. Herriak uste du langileei enplegatzen diren lanari dagokiona eman behar zaiela, zuzen. Heldu den urtean lan denbora ttipiegia dela ohartzen bagara, berrikusiko dugu. Logikoa litzateke, alderantziz, lan denboraren murriztea, lan batendako enplegatu baikenuen eta lan hori biziki ongi egina izan baita. Beraz, Assantza kultur guneko animazio lana eman diogu. Arnagako eta Assantzako beharrak ikusirik, uste dugu lan denbora bera atxiki behar dela, lehenik gaitasunak dituela frogatu baitu, eta bigarrenik, beharra baita Assantzan.

Auzapezak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartu da.

21 – Auzapezaren erabakien berri.

Lurralde elkargoen kode orokorreko L. 2122-22 eta L.2122-23 artikuluei eta 2014ko apirilaren 7ko Herriko Kontseiluaren deliberamenduari jarraiki, hauek jakinarazten dira:

1º) Lehentasunez erosteko hiri eskubideari dagozkion ezezko erabakiak, 2016ko ekainaren 18tik irailaren 16ra:

- Lursailak: 8
- Etxeak: 8
- Apartamenduak: 5
- Sotoak: 0

2º) Hilerriko kontzesioen emateari eta berriz hartzeari buruzko erabakiak, 2016ko ekainaren 18tik irailaren 16ra:

- 15 urteko kontzesioen erostea: 1
- 30 urteko kontzesioen erostea (+hilobiak): 1
- 30 urteko kontzesioen erostea (+ kolunbarioak): 0
- 15 urteko kontzesioen berritza: 1
- 30 urteko kontzesioen berritza (hilobiak): 3
- Urririkako lursailen berriz hartzea: 0

22 – Gainerateko gaiak.

- Auzapez jaunak oroitarazi du Sebastián Duróni omenaldia eginen zaiola urriaren 21ean eta 22an. Musikari espainola Kanbon hil zen, 1716ko agorrilean. Kolokio bat izanen da hari buruz, Bordeleko eta Madrileko unibertsitate-irakasle batzuek emanik. Ostiral arratsean, mintzaldiak izanen dira, eta Espainiako Harmonia Del Parnas taldearen kontzertua. Larunbat arratsean, mintzaldi bat izanen da, eta ondotik kontzertu bat, Kanboko organoan, arraberritua izan baita. Kontzertua Bordeleko unibertsitateko irakaslea eta organista den Dufourcet-Hakim andereak emanen du.

- Auzapez jaunak oroitarazi du biztanleen errolda bat pentsatua dela herrian, 2017ko urtarrilaren 19tik otsailaren 18ra. Behin behineko emaitzak 2017 hondarrean izanen ditugu, eta behin betikoak 2018an.
- Auzapez jaunak baieztatu du, Herri Elkargoak galdeginik, Arnagako zalditegiak Monumentu Historiko sailkatuak izan direla.
- Auzapez jaunak oroitarazi du euskal pastizaren bestak arrakasta handia izan duela.
- Hiriart-Urruty andereak erran du zinez pozten dela Kanboko igerilekua ikusleendako prezioan baliatzen ahal baita astelehen arratsetan, 19etatik 20etara. Galdegin du badakigun zenbat jende ibili den.

Lespade andereak ihardetsi dio ez duela zenbakirik, baina arrats guziz joan dela, eta bere ustez, 7 jende zela gutienez, eta batzuetan 15 jende arte. Jendeak zinez kontent ziren, ez ziren bortxaz kanboarrak. Bere ustez, esperientzia berriz egin behar da, galdea baita.

Hiriart-Urruty andereak uste du segitu behar dela eta beharbada aste-egun gehiago ere finkatu behar direla.

Lespade andereak erantzun dio Herri Elkargoak duela gaitasuna hartuko heldu den urtean, eta beraz, ez dakiela gai hori Kanbok kudeatzearen alde izanen da.

Hiriart-Urruty andereak zehaztu du batzuetan hogeit hamar igorilari baino gehiago direla.

Auzapez jaunak oposizioa eskertu du, Lespade andereak gauzatu duen ideia on hori ukanik.

- Hiriart-Urruty andereak galdegin du karabanendako eremuan zenbat jende ibili den badakigun.

Auzapez jaunak erantzun dio Didier Irastorza dela horretaz arduratzen. Hastapenean arazo batzuk izan dira, eta bortxaz, ohiturak aldatu dira. Urririkako tokirik ez, urrikako urik ez. Didier Irastorzak erran omen du arazo berak izan direla bainu hiri guzietan. Karabanendako eremu bat zuten toki guzietan, gutienez sei hilabete behar izan dira arazo guzien konpontzeko. Karabanen erabiltzaileak abisatuak izan dira; batzuek kritikatu gaituzte, baina anitzek erran digute egina izan dena biziki ontsa zela; baita kanboar batzuek ere. Wifia gelditzen zaigu hobetzeko, baita elbarrituendako tokia ere, toki pixka bat gehiago uzteko. Jende kopuru interesgarria ibiltzen dela erran daiteke; gaur goizean, 44 tokitik 12 gelditzen ziren.

- Bacardatz jaunak ohartarazi du karabanen erabiltzaileek karabanendako eremua GPSan idazten dutelarik, Camp de César deitu bide puntara igortzen dituela. Beraz, etxe pribatuetara sartzen dira gibelera itzultzeko. Galdegin du karabanei sartzea debekatzen dien seinale bat ezartzen ahal den.

Auzapez jaunak erantzun dio gai horretan dena bikain egin dela, seinaleak salbu. Camp de César deitu biderantz joatea debekatzeko, “eskuinera itzultzea debekatua” seinalea ezarri behar da, baina batez ere, biribilgunean, seinaleak eskas dira. Hala ere, sare sozialak eta barne informazioak badira, karabana erabiltzaileek elkarri jakinarazten diote gune hori badela, eta beraz, bere ustez, arazo gutiago izanen da heldu den urtean.

- Saint Jean jaunak ohartarazi du irisgarritasunari buruzko azken bilkuran erabaki zela herriko kontseilari guzietan proposatzea ibilbide baten egitea mugimendu eta zentzumen urritasuneko egoeran. Ibilbide hori urriaren 15ean egitea proposatzen da, larunbatarekin, 10:00etatik 12:00etara, eta jakin nahi luke zenbat jende joanen diren, materialaren aurreikusteko. Frontoetik abiatuko ginateke, Chiquito karrikatik elizarantz igotzeko, eta herriko etxera itzuli, aparkalekutik. Bide batez, irisgarritasun batzordeko kideak bilkura batera gomiatu ditu, urriaren 12an, asteazkenarekin, 18:00etan, ibilbide horren prestatzeko.
- Aïçaguerre andereak jakinarazi du gutun bat iritsi dela herriko etxera, Beaulieu zentrotik Makeako biderako bidegurutzera doan hesiari buruz. Scooterrek arazoak dituzte, bidetik aldaratu behar baitute hesitik ateratzen diren adarrak saihesteko. Makeako bidera itzultzeko, ezkerreko aldaratu behar da, eta horrek arazoak sortzen ditu. Zaila izanen da, segur, ordaindu nahiko duen norbaiten atzematea, baina aipatzea galdegin diote, beraz aipatzen du.

Auzapez jaunak erantzun dio arrazoi duela, dudarik gabe. Departamenduko zerbitzuei dei egin die, bestalde bide hori baliatzen baitute, eta Jouandet jaunaren gutuna Guérin jaunari eta jabe guzietan helarazi die. Arrapostuen beha dago.

- Bardin jaunak Herriko Kontseiluko kideei jakinarazi die THPrekin aitzinamendua eta berrikusketa zertan den. AVAP (arkitekturaren eta ondarearen agerian emateko guneak) batzorde ofizial bat izanen da, azaroaren 4an, ostiralarekin, 14:30ean, Axe et Site kabinetarekin, eta abenduaren 8an, ostegunarekin, 18:30ean lehen bilkura publikoa THPri buruz. Bestalde, azaroan, hirigintza batzordea Axe et Site kabinetarekin bilduko da, baina eguna ez da oraino finkatua. Diagnostikoa bururatzen ari da, beraz bilkura publikoan zerbait aurkezten ahalko dugu. Euskarririk gabe, ez da interesgarri bilkura publiko baten egitea.
- Bacardatz jaunak azken gaia aipatu du, betiko “hari-gaia”. Camp de Césarreko obrak ez dira oraino eskuratuak izan. Faktura urriaren 1.ean ordaindu behar zen, baina ez da sekula iritsi. Zertan gaude?

Devèze jaunak erantzun dio ez dakiela segur obrak guziz bururatuak diren. Heldu den astean, bide-marka egokituak egingen dituzte Camp de Césarren. Gaineratekoarentzat, ez daki deus.

Magis jaunak gehitu du herriko etxeak inguruetako biztanleei gutun ofizial bat igorriko diela, saneamendu sareari lotzeko baimena emateko. Gutun hori eskuratu orduko, lotzen ahalko dira.

Bacardatz jaunak galdegin du kobratzea abenduaren 1era pasatuko den.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak erantzun dio gutunak hemendik urri hondarrera iritsiko direla.

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluaren bilkura bururatu du, 23:15ean.